

1671. V. 15

SAN VISO
L
BIZITZA




†
Pastanau, tar Demantzi adiskide,
que luster-lapuntalako leubakariste jin
to te enkat-idege jatorian

hizey
Markiz 'Tayk

aiarab 402.7.21

SAN LUIS'EN BIZITZA





M 7999
R 36081

SAN LUIS'EN BIZITZA

*JESUS'EN LAGUNDIKO HE-
RRERA - ORIA AITAK «MEN-
SAJERO'N ERDERAZ ATERA
ZUANETIK MARKIEGI' TAR
JOSEBA APAIZAK ANTOLA-
TUA : : : : : : : :*

DURANGO'N
Jose M.^a Dolara Elosu'renean
1932

NIHIL OBSTAT
Victoriæ, 27 Octobris 1.931
Emmanuel de Lecuona
Censor

IMPRIMATUR
Victoriæ, die 28 Octobris 1.931
Vicarius Generalis
Dr. Justus de Echeguren

LVISTAR EVSKALDVNA:

*EMEN SAN-LUISEN BIZITZA;
JAINKO - BIDE - ASMOETAN
ZURE ZAINDARIAK BEZELA
BURUA ILDURATUZ
ARITZA BEZIN SENDO,
LILIA BEZIN GARBI
IZANGO AL-ZERA*

SAN LUIS'EN BIZITZA

Amaseigaren gizaldi artan izan zan Europa'n gizon aundi ospatsurik asko; Españian bertan ez gutxien, berau bait-zan orduan munduko Efirik bikañena.

Mende artako idazle, gudari ta itxasgizonak, erialde beñi arkitzañeak, jakintsuak, ez dute azkenik; gure Euskaleñi maite ontakoak bakañik aitatu nai izanda ere, ereskada luzeegia jañi bearko genuke.


Gizaguren oien guzien artean ba-zan bat, orduan alako ezaguna izan ez añen, orain eta beti izen aundiko izango dana, mundua mundu. Mutil gazte bat zan; ogeitairu urte besterik es zituala il

bait-zan... orain mutil gazte askok ikasketak bukatzen dituzten garaian.

Gontzaga'tar Luis zitzaion aundiki-etxeko seme oni izena; ta onexen bizitza afigaia laburki esatera noakizu, Luis artean munduan bizi zala, Cepari'tar Aita Jesuita jainkozaleak idatzi zituan beriaia jaraituaz.

Aita Cepari'k Gontzaga'tar Luis Roma'n eza-gutu zuanean, ikusi zuan beronen biziera aldareetan goratzen ditugun Santu aundiena bezin jaungoikozkoa zala, eta, Luis'i ezer adierazi gabe, ixil-ixilik, paperetan idazten eta idazten ari izan zan arengan oartzan zituan egintza eta erakuspide ederak. Gero, Luis il ta gero, zifiboño aietatik eta Markesa amari, eta umezai ta moñoai eta arekin artu-emanen bat izan zuten guziei entzundako berietatik atera zuan oraindano azaldu dan San Luis'en bizitzarik onena. Aita Cepari'k argitaratutako bizitza ta beste batzuek auean ditudala idatzi det nik, aldi artako oiturak gogoan artutu, San Luis'en bizitza laburxo au.

Guziok ontzat emango al dezute.



VTIKO TXIKIA
CASTIGLIONE'N.
Italia'ko ipaŕaldean
ba'zan antziña aie-
tan doŕedun aresi
sendoz inguratuta-
ko efi koxkor bat.
Erdi-erdian gaztelu
aundi edeŕa zuan eta

andikantxe zuen eŕiak *Castiglione* izena: «Gazte-
lutzar». Gaztelu artan senar-emazte aundikiak bizi
ziran: Don Feŕan ta Doña Marta, Castiglione'ko
Markesak, II Felipe eŕegeren adiskide artuak.

Doña Marta'k Jaungoikoari etengabe eskatzen
zion eman zezaiola, aŕen, gero berari eskeintzeko,
seme bat. Eta baita Jaunak eman ere, ta izentzat
Luis jaŕi zioten, maumataŕen aurkako geŕateetan,
euskaldunak ondoren zituala, ain bulartsu ekin izan
zuan Prantzia'ko eŕege aundi santuaren izena.

Ots aundiz bataiatu zuten mutikoa San Nazar ta

San Zelso elizan. Ta ikusi dezakezu bataio-agirian apaizak zer idatzi zuan: «*sit felix carusque Deo*: zorioneko ta Jaunaren begiko izango al-da, ta beti-beti biziko al-da gizonen gogoanean». Lenengo semea zan Luis ta berari zegokion Castiglione'ko markes izatea. Ez da bada aritzeko, mutikoa ondo baño obeto azteko guraso aien ařeta bizia.

Doña Marta ama on-onak, umetxoa izketan asi orduko, berberak erakusten zion magalean artuta Gurutze Santuaren egiten eta Jesus ta Maria izen zoragařiak oguzten. Gero Aita Gurea ta Agur Maria.

Beste umeengan ez bezelako zerbait ikusten zuten, artean zentzugabea zan mutikotxo arengan etxeko mirabeak. Besoetan artzean, alako zer bat nabaitzen omen zuten, zeruko aingerua artuko bai-luketean.

Ume umetandik zuan beartsu ta eskekoengana nako eřuki aundia; eskuan zuana eman bear...

Eta bein baño geiagotan gertatu zan gazteluan: umea non zan galdetu ta eziñ iñork arkitu; Jaungoikoari otoitzka gure mutiko txintxoa basteřen batean gordeta...





VTIKO TXIKIA
GIZONKERIETAN.
Luis alako jainkoza-
lea ikusita, poz zan
Doña Marte, semea
Jainkoarentzat izate-
ko bere ametsak bete
bear zituala-ta. Mar-
kes aitak ordea, bera

gudaria izan nonbait, semea geñaribular tsu nai zuan,
berak bezela gudari-aintza ta omenak irabazteko.

Bein batean, Eregeren agindua Don Feñant'ek:
iru mila gizon berekin artu-ta itxasora, Tunez'era
bidean, erteteke. Aukeratu du gudari-taldea batze-
ko tokia: Po-ibai ertzean artadi beltzez inguratu-
tako eñi aundi bat: antxe egiten ziran, Venezia'ra
ibaian bera ekartzen zituen itxasontzi bikañak.
Berekin darama Luis ere, ea, gudarien or-emenak
ikusita, apur bat geñazaletzen ote zaion. An dabil-
tza gudamutilak lerdan asko danboñen otsean dra-

dra, aiztamakila luzeak eskuan, arkabuz astunak bizkafean, jantziak ikusgafi, ta burnizko txapeletan luma gofi-urdiñak bri-bri. Guzien aurretik, bantzuetan, lau urteko gure mutikoa, aiek bezelaxe jantzita bere arkabuz ta aiztamakil txiki ta guzti; gudari txikiak izkila txikiak bear ba. Aro da; arkabuzak muturretik nola kargatzen diran ere ikasi da ta su emanda gero nolako burunda ateratzen duten ere bai tiroa jaurtitzean. Berak ere tiro bat bota bear ba, ta sutauts geiegi sartu-ta-edo-su ematean, ango bafadak or eretzen dio arpegi-azala...

Beste bein, aita lo zetzala, berak su-emanda sutunpa ikaragafia eragin dio kurpil gañeko kañoiari. Onek, dunbateko indalez atzera egitean, ez dakit nola ez duan azpian artu ta lertu gure mutikoa. Esnatu da Markesa estu-estu. Ez da ezer esaten diote—, Luis'ek kañoiari su-eman... Zigor-tu nai du seme biuria Don Feñant'ek baña guda-mutilak, mutiko ain geñazalea begiko dute-ta, iritxi diote aitaren barkapena.

Gudariak geñara diranean, atzera Gaztelutzañera eraman duten umeak, zer esaten duan ez dakiela. baña soldaduai ikasitako itz zakañak esaten

dituala oartu dira. Asafe egin diote, ta Luis'ek ez du sekula geiago alakorik esango, eta bizi guzian egingo du negar, ezeren erugabeko pekate «aundi» oiengatik.

Zazpi urte bete ditu; gero ta jaungoikozaleago, gure lengo gudari txikia... Ona orduko gertakari bat. An ureko komentu batera santu izeneko lekaide bat etoñi da. Inguruetako guziak an dituzu ura ikustera. Eliza bete-bete zegoela—Luis ere an zan—inpernuko txefenak artutako batek eskua Luis'engana luzatu, ta esan du: «Orko mutil ori bai goian egongo dala zeruan». Ango dianak dakite gertaera onen beñi ta oraindik ere bizi dira, dio Aita Ceparik, itz oiek entzun zituztenak.

Egunero-egunero esaten ditu Luis'ek zazpi Neke-salmoak eta Ama Birjiña'ren Otoizpidea, luñean belauniko; baita gaxoaldietan ere, moñoeak laguntzen diotela alabearean.



ATIN IKASTERA.

Tunez'ko guda ondo-
ren aita etxera zanen,
ez zan Luis lenagoko
geñari txiki biñia, ka-
ñoiari su eman eta su-
tautsak arpegia kiskal-
dutako mutiko okeña.
Zortzi urteko mutiltxo

xintxo da orain. ¡A nolakoa, egunen batean aita-
ren mendeko eñiak zuzen erabiltzeko! Markesaren
oñordetzako aukerakoa! Luis'en ametsak beste
batzuek dira ordea,

Amakin dago Luis. Askotan entzun dio ain-
beste semetatik pozik eskeñiko liokeala bat Jain-
koari. «Ama—esaten dio bakañik dauden batean
—, askotan esaten dezu seme bat nai zenukeala
Jainkoarentzat; nai ori Jaunak beteko dizula uste
det». Geiagorik ez dio adierazi. Baña uñengo

batean bai. «Jainkoarentzako seme ori nerau izango nazula deritzat». Seme nagusia, Markesgoan aitaren oñordetzako jaioa, ta... komentuan sartu? Amak, ezta erantzun ere. Baña gero Doña Marta onak bere artean: «Bai,—zioan—olako mutiljainko-zalea Jainkoarentzat izan bear».

Zerbait ikasteko urteetara eldu dala-ta, Florenzia'ra darama aitak latin ikastera. Ango Dukeak, Prantzisko Medicis'tařak, laguna zuan Don Feřan eta aundiro artu zituan jauregi apañean Markesata onen seme Luis ta Eřodulfo. Ba'dijoa Luis ango areto ikusgarrietan bařuna; margolaririk ospatsuenak egindakoak izan-ařen, ormetan agiri diran eřege, duke ta gudari nagusien irudi eder ta izen-aundiak, ez ditu mundutařak bezin aintzakotzat artzen, ez diote oiek biotza betetzen.

Bederatzi urte ditu Florenzia'ko ikasketai ekitean. Jai egunetan eta, Dukearenean izaten da jolasean. Ba'ziran an bi neska txiki--gero bata Mantuako Dukesa ta bestea Franziako eřegiņa izan ziran.-Aiek jauregiko baratzetan Luis'ekin jolas egin nai izaten zuten; «Ez, nik naiago det alda-reka-ta ibili»-erantzuten zien mutiltxo elizkoiak.

Castiglion'eko markes txikiaren biotzean sus-

traiak egiten dijoa Ama Birjiñarenganako eraspenna. Aita Jesuita batek idatzitako liburu edeña—Erosario Santua ondo esateko era—eskuetaratu zitzaion bein, eta uraxe irakurtzen ari zala, sortu zitzaion biotzean Ama Birjiñari eskeñi aundi bat egiteko gogoia; ta bai egin ere. Elizara joan, Ama Birjiñaren aurrean jañi belauniko ta bizi guzirako itza antxe eman zion garbi-garbia izango zala ta ez zala ezkondu ere egingo. Geroko guzian, dakitenak diote, gogozko obenik txikienik ere ez zuala iñoiz egin garbitasunaren kaltean.

Onetan, egia da, asko lagundu zion emakumeekiko batere artu-emanik ezak; arpegira ez zien begiratzen. Aitari berari ziotsan bein: «Nai duana agindu, ta esana egingo diot; baña ez emakumeekin ibiltzekorik». Geiegizkoa ere ba-zirudien. Gela-moñoeak jazten zutenean, goñi-goñi jartzen zan,

Esanekoa ta apala zan. Moñoeai ere agindu ez baño eskatu egiten ziela zirudian; ain umilki.

Baña ez uste Luis'ek jolasik egiten ez zuanik. Umezaiaren paperetan agiri danez, ba-zuan azaga bat eta saritxo erosten omen zituan txoriak atxitzeko berun-añiak.



AINKOAREKIN IZKETAN. Bete ditu Luis'ek amabi urte.— Ainbeste laztasun eta baraur egiten ditu-aultxo dago mutila, ta aitak mendira darama, Kastiglion'eko mendialde zoragañira. Ba-

ña ark, Jainkoaren deiari jañaituz, gogor artzen du, neke ta baraur, bere gorputza.

Jaunak sariztu dio leialtasun ori: inongo ikaslek baño ederkiago erakutsi dio zeruko gauzei gozo artzen. Beste mutikoak pelotan naiz txoritan dabilzan bitartean, gela-bañuan egoten da Luis belauniko, Jesus'en Bizitza-Nekeei dagozten otoizgaietan pozak zoratzen.

Noizbait jauregiko moñoeak ate-ifiakitutik begiratzen dute, orduak eta mezak ematen zertan ote-dagoen gelatik ateratzeke. An ikusten dute

Gurutze afean belauniko, besoak zabalik, Jesus'i begira negar ta negar zotinka. Edo barealdietan, begiak zabal, ańizkoa bai-litzan geldi-geldi, txorabiatuta bezela. Sartzen dira mońoeak, Luis'en ondoan dabiltz, eta Luis ezta oartu ere. San Ińazio'ri ere Manresa'ko arzuloan orixe gertatu oi zitzaion.

Zabaldu dira eńian beńi auek eta emen datoz guziak jakinmińez Gaztelutzańeko Markesaren seme xantua Jainkoarekin izketan ate-irikitutik ikusi-naian.

Ain zuzen orduantxe izan zan Castiglione'n santu-usaiak alde guzietan zabaldu zituan gizon aundi bat: San Karlos Bońomeo Milan'go Artzobispoa. Elizan egin zuan itzaldi edeńak biotza ukitzen dio markes txikiari; ańexekin bakańean egoteko gogoa sortu zaio; ańexek erabaki bear dio zer aztunen bat: Jainkoarenganako bidea zein duen.

Gotzai Jauna ta Luis'en arteko alkańizketa ura amaitu zai daudenak, luze-iritziz daude atarian. Bańa Gotzaia, umetxo baten biotza ongi azten ematen dan garaiak, beste itxura aundiko gauzetan ematen danak bańo on ugariago dakańela-ta, alako landaretxo xamur edeńa ikusirik, antxe ari da poz askorik uraxe indartzen eta mardultzen;

gazteentzat ez bait-dago erakuspide bikañagorik bear bezelako beste gazte zintzo bat baño; ez dago orelako predikatzalerik.

Garai artan ez zan orain bezin sañi ta gazterik Jaunartzen eta Karlos Boñomeo Deunak aginduta egin zuan Luis'ek lenengoz Jaunartzeko aitorketa;—aren anima garbiak eta damuaren biziak añituta utzi zuten apaiza.—

Ba-dator Jesus artzeko egun aundia. Ezagundu Luis'ek zeregin aundienerako gertatzen ari dana; ikustekoa da aren añeta ta biotzbañukoitasuna. Edozein bazteretan arkitzen dute moñoeak otoitz eta otoitz.

Egun zoragañia eldu da. Gongotzai Jaunaren eskuetatik artu du gure Jauna, ta antxe dago begiak itxita, geldi-geldi, Jesus'ekin bañuizketan aspertu eziñik. Ari begira daudenak, mutil gazteari ez baño aingeruari begira daudela esango lukete.

Añezkero Aldareko Jesus'enganako maitasuna geitzen dijoakio egunetik egunera; amari galdetu: mezaerdikoan malko lodiak ikusten ditu mara-mara Luis'en matrail zurietan bera.



URERA JAINKO-
BIDEETAN. 1580'
gañeneko udatea
zan. Monferrato-bi-
dean dijoaz Luis,
aita, Erodulfo ta
irurak zaldi - gurdi
eder batean. Ani-
bal'ek eřomatařak

autsi zituan ibai ospatsua, Tesino-ibaia igarotze-
rakoan, ujol azitxoa ere ba-zetofen-eta, erdibi egin
da zalgurdia. Aũeko erdika, zaldiei loturikakoa,
eřaz atera dute; baņa beste erdika ibai-erdian dago
ujolaren mende. An dago Luis, eta itotzat ematen
dute aitak eta anaiak, ařisku artatik ez bait-zite-
kean iņola atera. Ontan, Jaunak ala naita, jo du
zalgurdi-erdikak zuaitz-enbor aundi bat eta atera
dute ibai-ertzera.

Monferrato'n Barnabi'tařen komentuetxe bat
dago. Saři joaten da arontz markes txikia; an iku-

siko dezute praile aietakoren batekin batera ta bestera, edo Elizako txokoren batean koruko abes-
tiak entzuten txorabiaturik. Ernai dago Luis'en
biotza. «Oña, —dio Luis'ek berekiko,—ba-dago
aldea! Fiorentzia ta Castiglione'ko jauregietan ez
det egundo onenbesteko pozik somatu; A! Auek
arkitu dute zorion-bidea! Jainkoarentzat bizi dira.
Jainkoak emango die saria. Bizia labuía da, ni, aita
il ezkerro, Kastilon'eko markes, zenbat urtean? Eta
gero? Bañuko añik gabe Jainkoarentzat bizitzea da
zorion-bidea. Eta nik, markesgoa utzi eta onelaxe
zergaitik ez det bizi bear? Munduko añisku bildur-
gañiak! Praile sartuko ba-nintz, zeruratuko nin-
tzake.»

Egunero-egunero zebiltzan Luis'en buruan
onelako gogamenak. Argia eskatzen dio Jainkoari
Barnabitañen elizan belauniko. Jainkoaren naia egin
nai du ark; anima zeruratu.

Alako egun baten: «Bai—esan zion bere burua-
ri—Umea naiz; amairu urte bakañik ditut; baña nik
praile izan bear det, ta praile bezela bizitzen asi
bear det gaurdanik: ez geiago antzerkirik, ez ja-
teketarik, ez dantzarik, ez maite-liburu ta oñelako
irakurkizunik».

Santuen bizitzak ditu irakurgai. Orduak eta mezak ematen ditu gela-bañuan gogaketan. Ezufetarañoko otza du. Sua egin nai diote, berotzeko, eskuak zartatu ere egin zaizkio-ta. Ez du ordea nai iñola ere surik, zerbait jasan, sufritu, bear omen du Jainkoarengatik eta txikitan ezaguera aurretik egindako pekatu «aundi» aiengatik; gudari txarrei ikasi ta zer esaten zuan beñirik gabe botatzen zitu-tuan itz zakar aiengatik; Casal'eko guda-etxean kañoiari su emandu aita asafarazi zuanekoagatik. Oregatik orenbeste barau eta aztiñaldi. Bildur izateko ere ba-zan gaztetxo aul ura azi-aroan ainbeste-ko neketan ikusita.

Kastilon'era aitarekin biurtu da: ostiraletan ura ta ogia besterik ez du artzen; larunbatetan ere ez, Ama Birjiñaren eguna bait-da. Onein gutxi aten ikusita ariturik daude jauregiko moñoeak. Zartadak ere somatzen ditue Luis'en gelan, zaldiei ematen zaizkien bezelakoxe zartada gogofak. Kirikatzen dute ate-zirikikitotik, eta an dago gizajoa belauniko, bizkaña goñi, lokañi luze batzuek artuta zirt eta zart; odola dario eta gela-ormetan ere mutil gaztetxo bigun aren odol-zipriztiñak agiri dira goñi-goñi.

Goiz-aratsetan egiten du otoitz; gauerdian ere ba-daki jaikitzen; jauregian guziak lo datzate-la, ura askotan gela-erdian balauniko ilunpean. Neguan Itali-ipaľaldeko otz miñak dardara eragiten dio; otzaren otzez noizbait luřera erortzen baldin ba-zan, alare jařaituko zuan otoitz egiten. Gau batez, ba-dago ogean, kandela-argitan zazpi Neke-Salmoak esaten eta artu du loak oarkabeen. Kandela-mutuřetik su artu du ogeak. Beroak eta keak eraikita, ba-dijoa Luis atera mořoeai ots egitera, ta bat batez jaiki dan su-gar gořiak kixkaltzen du ogea. Jaunari eskeřak, atera da Luis. Oge-eře puzkak gazteluko lubakietara jaurtiki ditu mořoeak leiotik bera.



UNDUKO EREGE-
RIK ALTSUENA-
RENEAN. 1581'g
urteko udazkena.
Insbruck'etik gazti-
gatu dutenez, bere-
ala emakume aundi-
ki bat, Karlos V
inperadorearen ala-

ba, Felipe II'ren arreba, Austriako Mari Inperatriza omen dator Madrid'era-bidean. España'ra Italia'ko aundikiak ari lagun egitea nai du Don Felipe Eregék, eta Don Feñant eta Doña Marta'ri idatzi die etortzeko aiek ere Austria'ko Doña Maria'kin.

Luis (amairu urteterdikoa) ta Erodulfo ta Elizabet txikia artuta abiatu dira ba Markes sena'emazteak Andra goitañaren lagun.—Genova'ko kaian ontziratu dira. Eta añaña! Inperatriza ikusi-beñaak aztoratu ditu bideko eñi guziak eta an dijoaz dianak alkañen leian. Luis, garbitasuna ongi

zaitu-beařaren zaitu beařez, emakume-arpegirik ez begiratzeko erabakia artua zegoen eta bide guzian Espařniako eřibururaņo Doņa Maria Inperatrizaren arpegirik ikusteke etoři zan.

Madrid'era bidean, Montseřat'eko Ama Birjiņaren elizara igo ziran bidazkari aundizkiok. Irurogei urte lenago, arkaitz goři aietako Ama Birjin beltxaran arexen auřean gudaribeři egin zan Iņigo Loiola'tařa. Ama Birjiņaren seme xintxoak ere ongi otoitz beroa egin zuan Catalunya'ko Ama maitearen eliza ospatsuan.

Ta eldu da Espařnia'ko uriburura, Madrid'era. Lurbira osoan ez zan orduan eři ospatsuagorik, ezta Felipe II baņo eřege altsuagorik ere.

Eřege aren auřean gure mutikoak zer nabaitu zuan asmatzen ez da gaitz: aren siņismen beroak, aren jainkozaletasunak, eta batez ere protestanteen aurka ta siņismengabeen artean Elizaren alde egiteko aren bular sendoak bete dio gure mutikoari biotza.

Gaņerakoan, eřege-jauregiko or-emenen aundirotasun eta itzalak eta Gaztela'ko aundiki-maundikien gora-berak paře eragiten diote; zeruko arazoen ondoan ume-jolasak bait-dira munduko aundikeri-

rik aundienak. Dianak joango dira,—dio Luis'ek— eta gero il-obian ezingo ditu inork bereizi Felipe II'ren ezufak eta jauregi-atera eskean etortzen dan Jaungoikoaren izenekoarenak.

Mundukeriak are geiago ostikopetzearen, Luis'ek ez darama gañerako jauregi-mutilak bezelako jantzi apañik, ez ufezko lepo-katerik, ez pitxi edefik: galtzerdi ufatuak sariago. Animako jantzia du ordea edera, garbia, kutsugabea. Uraxe ez al dio inork loituko!

Ijito-kumeetan ere itxusi ematen duten itz zatifik ez zuen, ez, aren afean ango aundiki-semek esango. Itzez eta egitez erakusten bait-zuan on izaten Kastilon'go markes txikiak.

Lagun artean ipuin lizunen bat edo esaten ari baldin ba-ziran, Luis zetoela ikustea naikoa izaten zuten guziak bat-batean ixiltzeko. Ikaste-etxeetan-eta zenbateraño on egiten duan gazte garbi batek!

Pelipe II'ren seme D. Diego printzipe gaztearen laguntzale dago Luis. Bein batean leio-ondoan exerita zegoen Printzea ta—aize aunditxo sartzen nonbait,—asefe-asefe jaiki ta asi da aizeari agintzen. «Aizea, oa emendik eta utzidak pakean!»

Luis'ek goxo-goxoki erantzuten dio: «Jauna, gizonei agindu dezaieke berofek, baña aizeari agintzea Jaungoikoari bakarik dagokio ta aren mendeko ta agindupean egon bear beori ere.» Efegek ontzat artu zuan semeari Castiglione'ko mutil burutsuak esana.

An bertan gertatutako onek ederki erakusten du idazti onak irakurtzetik gazteak ateratzen duten onaren aundia. Ala bearez F. Luis de Granada jainkozale aundi ta idazle bikañak egindako liburu bat artu du Luis'ek eskuetan. «Gogo-ikasbide laburra» izkera askotara itzultitako idaztia. Irakuraldi artatik ain argi ikusi zuan Luis'ek otoitzaren aunditasuna, ta oartzuz otoitz eginbearra, orduantxe bertan artu zuan egunoro-egunoro, gogo-baraitzeke adi-adi ordubeteke otoitzaldia egiteko erabakia.

Gela-erdian, inora etzingabe, lufean belauniko jara ta asi da otoizketan. Bat ere gogo-baraitzen-distraitzen baldin ba-zan, naiz gutxi izan, ekin beriz ere otoizketari, burua beste ezertaratu gabe otoitzutsean ordubete osoa egin arte.. Otoitzean pakean utzi zezaioten, iskuturik ilunenean gordetzen zan. Ura ikustera norbait etortzen baldin ba-zan, lanak izaten zituen non zegoen arkitzen; Azke-

nean, gizonekin baño Jaungoikoarekin naiago zuala ark eta, pakean uzten zuten.

Aomen aundiz aitatzen dute Madrid osoan, prailerik jainkozaleenak bezin biziera onbidetsu goitia daraman éregetxeko markes txiki afigaía.





ERUKO AMAREN
DEIA. Lenago esan
degunez, komentue-
txeren baterako Jaun-
goikoaren deia entzun-
da dago Luis. Artean
amalau urterik ez zuan
ordea-ta, jakiña, ezin
ba iñorako biderik artu.

Urteterdi ta geiago da-

rama Madrid'en, orain; amabost urtetik gora ditu
ta garaia da onezkero zirt edo zart egiteko.

Arazo aztunik aztunenetakoa da-ta, Ama Bir-
jiñaren bitartez Jaungoikoari argia eskatzen dio
ongi erabakitzeko. Amabost urte inguruan gazte
guziak ardurarik aundienaz artu bear zenukete
bizibidearen aukeratzea; oñetaxe dago zuen orain-
go ta geroko zoriona.

Amari ere eman dio Luis'ek bere bafuko beñi:
San Prantzisko'ren seme izan nai luke; laztasun

aundietan eta mundutik ufuti bizitzen omen dira-ta. «Ez, seme, zu makaltxoia zera ta ezingo zenuke oñen biziera estuan iraun...» Aintzakotzat artu ditu amaren esanak.

Zabartuxe dagoan lekaidetalderen batean sartzeko gugoa ere etortzen zaio ea berak beñiz berotzen duan...

Ordena estu batean sartzea obe izango du... Bakar-otoitz-zalea ere ba-da-ta beneditino edo komentuetxeak basamortuetan eta gizartetik ufuti dituen oietako izatea erabaki du aizkenik...

Baña astiroago auznartu du oraindio. Santo Tomas Akino'taíak diona ere irakufi du, alegia, beren buruak bakaíik ez, baita besteenak ere onak egiteko alegintzen diran lekaideak dirala osoki praide onak; eta orain bai, argi dakus craingoan, norbere arimen eta besteenaren onerako lan egiten dutenetara ots-egiten diola Jainkoak...

Beñiz eta beñiz ere eskatzen dio Jaungoikoari arimak zeruratzeko lanbidean aritzen diran ordenetatik, agertzeko, bera zeinetarako nai duan

Jesulagunak ezagutzen ditu; sortubeñiak dira oraindik; beñogeien bat urte baizik ez bait-dera agertu zirala; ta begiko ditu biziki. Eliz-agintari-

tzarik, gotzai ta kardenaltza ta ofelakorik ez nai izateko eskeñia egiten dute; umetxoak eta gazteak zerura-bidean azten alegintzen dira; asko Indietara ta Japon'era-ta joaten dira, ango siñisgabeak biur-tzera; pozik joango litzake ba gure gaztetxo bu-lartsua ere!..

Auxe zala Jainkoaren naia ta, azken-erabakia artu-aufetik, Ama Birjiñari iritzia eskatzea burura-tu zaio. Ona emen nola. Dagonila da; bereala dator Ama Birjiña zeruratu zaneko eguna. Gertu du bere biotza alik ondoen egun aundi ofetarako ta, Jesulagunen Elizan artu du biotz-biotzez Al-dareko gure Jauna.

Eskeñak ematera, Ama Birjiñaren aldare-aufera dijoa; antxe dago Ama maitea zuri-urdin jantzita Jesus Auñá besoetan duala.

Begi biak Amarengan tinko-tinko, belauniko dago gure Markes txikia, Jesus'en Lagundian sar-tu bear ote-duan erakutsi dizaiola añen baño añen otoizka.

Onetan, abots argi-argia:— «Zoaz jesuita; ta eman aitorleari erabaki onen beñi.»

¡Ura poza atera zuan gazte maiteak jesuiten elizatik!.. Aitorlea bilatu ta dan-dana zabaldu dio.

Aitorleak erabaki aren sustrai, bideak eta azkena ondo aztertu ondoren:—«Bai, esaten dio, zu jesuita nai zaitu Jainkoak; baña, begira Luis, lenbizi bear-beaŕeko dezu ortarako gurasoen baimena; ori gabe ez zaitue Lagundian artuko-ta.»

Ba-dijoa etxera; Markesa-amari dan-dana azaldu dio... Doña Marta onaren baŕuko poza! Kristau ona zanez, semearen ona baizik ez baitzuan bilatzen, bere Luiskutun ura uzteak min-eman aŕen, biotz-biotzez eskeñi zion Jaungoikoari.

Aitak ez daki ezer. Buru ta begi jokoan ta jokoan, badauka doakabeak naikoa lan. Mar-marari dira bazteŕetan, ba-dagoela pŕin baten aldea aita-semeen artean-ta...

Markesa-andrea ber-bera joan da senaŕarengana, ta:—«Ba-al-dakizu gure Luis'ek ze bizibide aukeratu digun?—Zein?—(Markesak eŕe-xamar).—Jesuitatzakoa.» Esan ba-zuan, esan zuan; zer zan aren aseŕea! Seme nagusia,... Castiglione'ko markesgoan bere oñordetzakoa,... ta jesuita!!?

Semea bera datorkio orain:—«Aita, ongi erabakia daukat: jesuita joan bear det.» Sua zerion begietatik Markesak.—«Bizkar goŕian jo ta jo txikitu arte aztinduko aut geiago oŕelakorik aitatzen

badiak. »—diotsa aitak.—«Ai orixe, aita, pozik eramango nuke Jesus'en maitasunaren»—esan eta alde egin zuan aitaren aurretik.

Mares Jauna asma-alak esaten ari da semearen aitorlea dala-ta:—«Arexek du eñu osoa; arexek sartu dio buruan Luis'i markesgoa utzi ta jesuita joan bear dualakoa»—dio aseñe bizian.

Ots egin dio aitorleari ta Luis'en aurrean min-min esaten dio.—«Zuk sartu diozu nere semeari buruan markesgoa utzi ta praide joateko ori.—«Markes jauna—erantzuten dio apaizak—zure semearen erabaki oñen beñi egun gutxi dira oraindik jakin dedala, baña zeroñek ere igeñi bear zenuan santu-iduriko zure seme oñek ez zezakeala bestetara jo.»

Baretusamartu edo-zan Markesa itz auek entzunda ta esaten dio Luis'i.—«Ara seme; lekaide joan nai badezu, zoaz; baña jesuita ez. Gure etxearen izen aundiari dagokion erako eliz-agintaritzaren bat iritxi dezakezun Ordenaren batean sartu zaite; baña Jesulagunak agintaritza oiei ezezkoa eman bear izaten diote.—Ain zuzen, oñegatik nai det ba Jesulagun izan—erantzuten dio Luis'ek,—agintaritza ta goi-mañarik nai ez dedalako.»

Joan da apaiza. Markesa, kezkatu, berekiko izketan ari da: «Zerk eman diola Luis'i bat-batera jesuita joan nai izateko? Ta jokoan diru-mordo edera galdu dedan onetan ain zuzen befi txar au? ¡Au baruko aña! Ez ote-du gero ni jokutik alderatzearen egin? Izan ere, aita jokoan diru galtzen ari dala, gixajo ori etxeko bazteren batean egoten omen-da saritan belauniko, negarez otoitz eta otoitz»...

Luis'en erabakia bareatu da Madrid osoan eta: —«Bai:—diote ango aundikiak—aitaren jokorako griña txara kentzearen dabil ori.»

Nozbait siñistu zuan D. Feñant'ek Luis'ek Jesus'en lagundirako egiazko deia zuana; ezin etsi ordea ta deitu dio Prantziskotaren Buru Nagusi zegoen Gonzaga'tar Prantzisko Aitari; ekusizezala ea Luis'en goi-deia egiazkoa ote-zanentz. Bi ordu ta geiago egin zituan zeatz azterkatzen, eta azkenean: «Argi dago—esan zuan—Jainkoak Jesus'en Lagundirako nai du gazte bikain au.»

Eguna joan ta eguna etofi, aita ez zan ezertaritzen, eta auxe asmatu bear izan zuan Luis'ek: alako batean Erodulfo artu ta badijoaz biak Jesuitetara, ta esaten dio anairi: «Zoaz orain zu etxera

ta esan, ni emen gelditzen naizela. . Aren erabakia ekusita, esan dio etxerakoan aitari.

Aseñatu da Markes Jauna ta bereala ziran jesuitetxean moñoeak Luis'en bila. Baña Luis'ek erantzuten die: Biar egin bear dedana zergatik gaur egin ez?»

Oraindik ere ezin etsi du D. Feñant'ek, eta Prantziskotañen Buru Nagusiarengana dijoa, aidea ere badu-ta. kentzeko, añen, Luis'i jesuitatzako burutapena. Biar edo etzi, ni ildakoan, jesuitatzen baño markesgoan on geiago egin dezakeala-ta. —«Ez oñelakorik—erantzuten dio Aba Nagusiak—; Jainkoaren deia uzkekorik ezin dezaioket nik Luis'i esan.»

«Italia'ra biurtu arte beintzat ez dedila sartu.» —«Ezta orixe ere, ezin nezaioke agindu»... Eman dio ala ere aitarekin izandako autu guzien beñi. —«Eragozpen aundiak jañi bear dizkit aitak Italia'n; baña azkenean ere ni Jainkoaren deiari jañaituz, jesulagun joan bear»—iardetsi zion Luis'ek.

VIII

BURUKA BIZIAN. Andrea Doria itsasgizon ospatsuaren ontzian itsasoratu da Italia'ronz Luis'en goi-deia azterkatzen ari izandako Prantzisko'tar Aita Nagusia. Ontzi gañean an dijoaz itsasora begira itz eta itz bi adiskideak; Gonzaga'tar Aita Prantzisko ta Gonzaga'tar Luis gaztea. Maixu zañaren erakutsiak ondo gogoan artzen ditu Luis'ek.

Italia'ratu orduko gogorazi dio Luis'ek aitari: —«Ona Itali'an; sartu al-ninteke orain jesuita?»— «Lenbizi — erantzuten dio Markesak — Italia'ko aundiki nagusiak ikusi bear dituzu, Feñara, Mantua ta Saboya'ko Dukeak eta Toskana'ko Duke Aundia, ta Parma'ko Printzipea-ta».

Ongi igeñi zuan Luis'ek luzapen auek guziak aitzakiak besterik ez zirana, baña aitaren naia egin bear ko. Eñodulfo anaia lagun artuta atera da Luis moñoez inguratua; ez dijoa besteak bezela uñepitsez jantzita, oial beltzez estalita dijoa. Ostatu-etxeetara eltzen diranean, bereala asiko da otoizketan Jesus Kurutzekoaren aũean; ta arkitzen ez

badu kurutzerik, ikatzaz-edo berak egin eta jañiko da belauniko.

Saboia'ko Turin'en gertatu zitzaizkion gazte-entzako bi erakuspide eder auek.

Jauregietxe batean beste aundiki gazte batzuekin zegoela, irurogeitik gorako aitona zar bat lizunkerien batzuek esaten asi zitzaien. Luis'ek, agurezar lizunari zofotz begiraturuz, esaten dio:— «Lotsatu ere ez zera egiten gazteen aurrean oréla jarduten? Erakutsi txarria ematen dezu!»—eta eliz-liburu bat artu ta alde egin zuan.

Beste bein, ezagutu egin nai zutela ba-ta, ots-egin zioten osaba Erkules'enera. Dantzaketa bat gertu zuten an. Asi zan dantzaketa ori ta emen datoikela nexkatxa bat Luis dantzara ateratzeko asmotan. Ez zion onik egin bat ere ta, aitzaki-maitzaki, bereala alde egin zuan an aietatik. Ez etortzen eta ez etortzen, eta osaba Erkules'ek etxe osoa arakatu bear du aren bila. Moñol-gela batean arkitu du: baztertxo batean, belauniko, otoizketan. D. Erkules ari-ari eginda, ez zan itzik esaten ausartu, ta otoizketan utzi zuan gaztetxo maite garbi-zalea.

IX

BESTE IRU ERASOALDI. Lañi zebilen etsaia gure gazte bikañaren garai-penak ikusita, ta gertu dizkio beste iru eraso, gaztelutzar sendo ura menderatu naian.

Dalako arazo ori ez bearko aitaren aurrean aitatu. Mutikokeri ergela besterik ez bait-zan, seguru!

Bein batez, Mantua'ko Dukeak bialduta emen dator Kastilone'ra Gotzai jaun bat; izlari egoki eragikoña bera. Luis'i jesuitatzako gogoa kentzera omen-dator.

—Aizu, gazte,—esaten dio,—¿zergatik nai dezu jesuita joan?— Jainkoaren deia dedalako. Ta gañera jesulagun sartuta, arimen onerako ta Jainkoaren aintzarik aundienerako geiago egin dezakedalako.

—Ba, ba! Ori besterik ez bada, begira Mantua'ko Dukeak zer esatera bialdu nauan. Egin zaite apaiz; ta gero Gotzai, Kardinal egingo zaitue, Boñomeo Jazkordun ospetsua, bezela: ta, aren antzera, lekaide askok baño on geiago egingo diozu Elizari.

Jainkoak jesuita nai nau, — erantzuten dio Luis'ek. — Duke jaunari nere alde erakutsi duan gogo onagatik, eskerik asko; ta esaiozu ain zuzen eliz-agintaritzarik sekula izan nai ez dedalako noala Jesus'en Lagundira.

Bigarren erasoaldia. Aginbide aundiko jaun batek onela itz-egiten dio: — Ederki ori; baña munduagandik uruti bizi nai baldin badezu, sartu zaite kaputxino naiz kartujo. — Ezta, — erantzuten dio, — beste lekaidetza guzietan baño munduarengandik urutiago biziko naiz Jesus'en Lagundian. An ez bait-dago aberats izaterik, beartsu-ziña egin ezkerro jabetza-eskubide guziak galtzen dira-ta; agintaritzarik ere ez dago an, Aita Santuak gogoñean agindu ezik, ez bait-diteke artu.

Irugarren erasoaldia Kastiglion'era eldu dan eliz-iztun ospatsu batek eman dio. Ez alpeñik! ez dago Luis'i zirkiñik eragingo dionik; itsas-ertzeko aitza da ura!

Olatu-ugin guziak apañetan biurturik ikusi aitak eta ezin du asañea bañuan gorde. Osasunez aultxoa bazuan ere, Jainkoaren deiari erantzuten ondo sendoa zuan semea; aren biotza bai egitan «Gaztelutzar».

Bein batez Markes Jauna geixorik ogean. Luis'i deitu ta esaten dio: «Zertan gaituk ire gero-ko ofetan?» Begirapentsu baña ausarki erantzuten dio:—Ba'dakizu, aita; nik jesuita sartu bear det»... Arenorúak au entzutean! Otsoa irudi:—«Oa emen-dik,—esaten dio sua dariola,—eta ez al-aut sekula begien aúfean ikusiko!»

Aitaren zakarkeri onek biotz-ukituta ba'dijoa Luis etxetik an uíeko komentuetxe batera. Arkaitzean-bera pits eta apaíetan zetozen ur-xiíipak sortutako intzira zabal garbi-garbi bat ere ba'zan an.

Ituñi garden aietako baten ondoko gelan jañi dute lekaideak; besteetan ere antxe egon oi-da, ta lekaide onak biotz-biotzez araxe ekañi dizkiote jauretшетik oge, liburu ta ilduragaiak.

Ta antxe ematen du eguna, belauniko otoizketan edo bizkar goñiak zirt eta zart astinketan.

Egunak auíera. Ta Markesa ogean, Luis'ek lekaidetxean daraman bizieraren beñirik bat ere gabe; ta ¿nork esan?... asafe bizian jartzeko ere!...

Oñatik alako batean:—«Luis non da?—gure Markesak. — Ituñiondoko lekaidetxean bizi da egun osoan otoitz eta otoitz, eta gorputza ilduratzuz.»—«Datoñela!» Ba'dator Luis.—¿«Zer dala-ta

alde egin dek etxetik? Neri min emateafen?»—
«Ez jauna; zeroŕek esan zenuan ez ninduzula nai begien aŕean ikusi.» Markesak asaŕe:—«Oa ire gelara, txatxu ori». Ta joan zan Luis, burua makur, aitaren esana egiteaŕen.

Sartu da bere gelan gazte ildurazalea, itxi du baŕutik atea ta jaŕi da gurutze aŕean belauniko. Jaunak emango aldio buŕuka artan sendo irauteko indaŕa. Mara-mara darioz malkoak luŕeraŕno; gero, soŕnekoak kendu ta asi da eŕuki gabe bizkar goŕian zirt eta zart.

Aita kezketan da ez ote-duan semea gogortxo artu. Etxeburuari deitu ta agintzen dio: «Ea, ekusazu semea zertan dan.» Nagusi gizajoa ba'dijoa Luis'en gelara ta atean dagon moŕoeak:—Ez sartu, ez sartu—esaten dio—baŕuan dago Luis eta aterik ez zabaltzeko agindua eman du.»

Nagusiak ezpata-mutuŕez zifikitu bat ideki du. Ixil-mixilka begiratu du andik eta jua ikusteko erdiragaŕia! Luis, gurutze-aŕean belauniko ta negaŕez ta bizkaŕean zartadaka.

Dana izututa an dijoa moŕoe-burua Markesagana, ta, malkoa dariola: — «A Jauna,—esaten dio,—don Luis nola dagoen ikusi ba-zeneza, ez

zenioke, ez jesuita sartzen galaziko.—Zer diozu? —diotsa markesak.—Negáñez zaude?—A, jauna, zure semea ala ikusita, ańizkoa bear nuke ez negar egiteko». Jalki dio dana markesari: gela bańuan entzuten ziran zartadak... ezpata-mutuńez ateko ifikitoa zabaldu zuana... Luis gurutze-auńean belauniko ikusi zuana negáñez bizkańa-astinketan...

Ańitu da aita bere semeaz esaten diotena entzunda. Ta biaramonean, zartada-ots berdińak entzuten dirala Luis'en gelan beńiz ere... Markes eriak bere ońez joaterik ez-ta, alki batean exerita Luis'en gelako ate-auńera eramateko agindu du. An dijoa Markesa Andrea ere. Otsak entzuten ditue; zifikitotik begiratu, ta jua ikustekoa! Seme nagusia an gurutze-auńean belauniko, negar ta negar, ugal gogońez bizkańa pońokatuaz Jaungoikoari otoizka Jesus'en Lagundian sartzen uzteko bigundu zezala ańen aitaren biotza.

Ikara-ikara jańi zan Markesa konorte-gabetzeko zorian. Ta apur bat bereratu zanean, sartu dira gela-bańura Markes-andrea ta biak. Semearen bizkańetik eroritako odol-tantoz gońitua zegoen luńa ta malkoz busti-bustia.

«Egitan,—esaten du Markesak semearen ildura

ikaragañiak ikusirik,—Luis jesuita izatea nai du Jaungoikoak»—eta idatzi dio Eróma'ra senitarteko aundiki bati, Jesuiten Buru-Nagusi A. Kauldi Aquaviva'gana joan eta esateko, maiteen-maiteen duana ematen diola, Luis, seme nagusia, bere mende-erri guzien jabetzakoa... orain, jesuitatzako; ta ea nora bialdu bear duan. Eta A. Kauldi Aquaviva'k erantzuten dio Eróma'ko apaizgaitegira bialtzeko.

Noizbait ere garaitu du gazte santuak. Egun aietan ezin-esan-alako argia zerabilen begietan. Jesus'en Lagundiko Aita Nagusiari egin dio idazkia:

«Jainkoagango Aita: Au buruko poz-atsegiña eman dit Jaunak egunotan! Aren erukiaren uste ona beti izan det nik eta noizbait ere, buruka bizi-gogor-ondoren, ezinda obeki egin ditu nere betiko osasunerako bideak.

«Aren eskatzen diot ots egin dizaidala lenbailen Eróma'ra, Jesukristo'ren Ordezkariaren Erri santu oretara, jainkozko gizonekin biziaz nerau ere santu egin nadin.

Jaunanaga zure seme Gonzaga'tar Luis.

1585'gn. dagonileko 15'n, Ama Birjiñaren Zeruratze-egunean».

Orain mende-eriekiko eskubideai jareitea dagokio: aitarengandik datozkionai ta geroko guzian etoñi ditzaizkioken guziaz.

Oñetarako ordean Inperadorearen baimena bear. Eguna joan ta eguna etoñi, zortzi ilabete luze daramaz Luis'ek zorioneko baimen oñen zai Milan'en.

Alako batean eldu zitzaionerako, amazazpi urte ta geiagokoa zan gure mutia.



ZKEN - BURU-
KAK. Milan'en da-
go markes-semea,
amazazpi urtekogu-
re mutil-gaztea; ta
pozik dago, bere
bizi guziko gogoa
betetzeko eguna
gañeanduala.ta.Biar
edo etzi ots-egingo

dio aitak Castiglione'ra, gero andik biak Efo-
ma'rontz abiatzeko. Baña ustekabean Markesa
bera Milan'era.—«Seme, zertan gaituk oñako arazo
ortan?—Jauna, ni lenbailen Efo-ma'n jesuita sar-
tzekotan». Goibel eta ilun jafi da Markesaren ar-
pegia.

Gero, semea gozoki artu, ta—«Begira, Luis
—esaten dio; Jainkoaren deiaz besterakorik ez
diat nik aginduko; ez nauk oñen gaiztoa, baña
jesuitatzako ifika ori umekeri ergel bat besterik
ez dek. Gurasoak maite izateko agintzen dik

Jainkoak, eta maite ba-nauk ez diak orelako nai-gaberik eman bear, eta onela gexorik eta mende-erriak erabiltzeko ire bear ikusita batez ere. Begira, Luis; Gaztelutzaí'eko markes izanda, ire mende-koak onak izango dituk eta Jesus'en Lagundian sartuta baño on geiago egin dezakek».

«—Or dago Erodulfo anaia— erantzuten dio Luis'ek.—Bai, baño—iardesten dio aitak, Erodulfo ez dek i bezelakoa; oker-xamaña dek. Begira, seme:jesu-lagun sartzen ba-aiz, naigabez il egingo nauk»... Ta negar zegian aitak zotinka umea bailitzan.

Biotz-ukituta Luis'ek esaten dio aitari:—«Jesuitatzako dei egiten dit Jaungoikoak. Jaungoikoaren urengo ez diot zuri aña beste inñori zor. Baldin Jaungoikoaren deia ez ba-nu, aitaren gogoa egingo nuke. Aita, ni jesuita naraman Jaunak, Berak emango dizu mende-erriok zuzen erabiltzeko bidea.»

Markesak oraindik ezin du etsi. Semeari aginpidedun gizonak eta gizonak bialtzen dizkio asmo ori burutik kentzeko-ta. Baña aien erantzuna beti bat: «Zure semeak Jainkoaren deia du.»

Azkenean, bere gexo ta abar, alki batean

exerita eramanazi du bere burua jesuitetxe batera.

Aba jakintsu aditu bati ots-egin dio aztertu dezala ongi beraren aurrean ea Luis'ek jesuitatzako goi-deirik ba-ote-duan. Eta ala: asi da Aita burutsu ori Luis'en begien aurrean jesuitatzako eragozpenik aundienak jartzen. Luis'ek bat ere estutzeke erantzuten dio, bere iritzia idazteuneko ta elizgurasoen itzen bidez indartuaz. Azkenean Abak poz eta gar aundiz esaten dio: «Bai, don Luis; zuzen zaude, Jainkoaren deia dezu ori.» Ta markesak burua makurtu ta agindu dio Luis'i egiteko, ba, lenbailen agiria, dagozkion mende-erri ta merkesgoa utziaz.

Ale ere ez dago oraindik bere onean markesemea: «Aitak ez ote-dit oraindik eragozpen beñirik jarriko?» Ta idazki bat egin zion Jesuiten Aba Nagusiari: «Baldin aitak eragozpen beñirik jartzen ba-dit, aren baimenik gabe jesuitetxe batera sartzea erabaki det.» «Ez—erantzun zion Aita Nagusiak; aitaren baimenikan gabe ez dezu sartu bear.»

Aita San Inazio aundiak Manresa'ko arzuloan idatzitako Gogo-Inarkunak egitera joan zan orduan jesulaguntegi batera.

Zeruko aingerua dirudi, Ixil-ixilik bañu-otoizketa sakonetan daramaz egunak. Azken-buñukarako gertaketan ari da Gaztelutzar'ko aingerua.

Biurtu da atzera gurasoen gaztelura, ta begira dagokio Andre Marta nolako aietaz ari dan anae txikiak otzitzak erakusten-eta; Prantxixko'ri batez ere; ta uaxe izan zan gero Castiglione'ko Markes. Goxoak-eta ere ematen dizkie gogozago ikasteko.

Baña oraingoan ere, egunak joan eta egunak etofi... ta aitak itzik ere ez jesuita joateaz. Kezka bizian dago Luis. «Aitak atzera egin ote-
du? Itza jan egingo ote-dit?»..

Ezin ba oñela bizi, ta alako batean esaten dio: —«Aita, egunak auñera dijoaz-ta, nere gogoa betetzekoa ere, onezkero...» Markesak otz-otz: — «Iñoiz oñetarako baimenik eman diadanik ez zeukat gogoan. Ogetabost urte betetzen ditukanean erabakiko dek dagokikana. Jesuita joan nai ba-dek, oraintxe bertan oa; baño ez uste nere baimenik izango dekanik, eta ez aiz nere seme izango». Orma txuria baño txuriago gelditu zan Luis gaxoa ustegabeko itz aiek entzutean.—«Ai! Ez zaidazula orlakorik egin, aita!»—«Nere baimenik ez dek izango—erantzuten dio markesak—; eoñek erabaki, zer egin».

Zearo naigabeturik dijoa Luis beñiz ere gelara Jainkoaren laguntza ařen ta ařen negaía dariola eskatzera.

Markesak beñiz bereala ikusi zuan;—«Ta? Zer erabaki dek?»—galdetzen dio.—«Ez dago nerretzat mundu onetan nere jesuita-sartzeari luzape-na emateak baño min aundiago ematen didanik ezer; baña zuk ala nai izan ezkerro, egongo naiz beste bi naiz iru urtean ere; baña begira: Urte oiek Eroma'n egitekotan; eta gañera, Jesu-lagundiko Aba Nagusiari zerofek idatzi, urte oien buruan jesuita sartzeko zure baimena oraindanik ematen didazula. Bi baldintza oiek betetzen ez ba-dituzu, aitari min ematea min izango det, baña or joango nauzu; aitaren esana ez baño Jaungoikoarena egin bear bait-da.»

Estu artu zuan Markesa; baña artean, egun batzuetan, ua berean. Azkenean, ordea, eman egin bear izan zuan baimena.

Oskarbi jañi da, udako odei-moltsoak bat-bateko aizeak artu ta aúrean eramaten dituanean bezela. Beñiz ere odeiak ordea. Eguna uferatzean, beñiz ere ergozpenak, aitzakiak, luzapenak beñiz ere.

Jaungoikoari laguntza eske ari da Luis etengabe otoitz, ildura ta baraur. Lau ordu daramaz

oraingoan otoizketan, eta oía: «Jaiki zaite—erantzun du—; zoaz aitarengana eta esan beñiz ere uzteko, añen, Jesus'en Lagundian sartzen.»

Aingeruak eraikorita bezela, jaiki ta ba'dijoa aitarengana ta oge-aufean jañi ta esaten dio:—«Aita ta jauna: zure mendean naukazu oso-osoki; baña Jainkoak jesuitatzako deia egiten dit eta joaten ez uztea Jainkoaren aginduari gogor egitea da,»

Eta besterik gabe, gelatik atera zan.

Biotz mami-mamiraño sartu zaizkio itz auek. Gero, irudibilean, *zinean* bezela, Luis'en bizitzako gertaera guziak antxe agertzen zaizkio buruan bata bestearen ondoren Elizan, aingerutxoa, iduri, gure-jaunartu zuanekoa; gurutze-aufean belauniko; bizkañak astintzen odola dariola; aitaren baimena irixteko Jainkoari otoizka. Jaungoikoaren deiari jañaitzeko berak jañi dizkion eragozpenak ere ekusten ditu, bai, baña jene! seme maiteari joaten uzteak min ematen!..

An dabil ogean ezkeñera ta eskuira bere oneratu eziñik, burua irakiten. Orma-aldera itzuli ta asi da negañez, negar ta negar; aren zotiñak moñotarañoko guziak somatzen ditue añiturik.

Ase-samartu zanean, ots-egiten dio Luis'i ta zotin artean: -- «Seme:—esaten dio—maite aut;

beti izan aut ik merezi bezela maite; nere oñorde-
tzakoa eu intzan eta biotza erdi bi egin diak. Baña
Jainkoaren deia dekan ezkerro, nik ez diat galaziko.
Oa, seme, oa; ematen diaz nik baimena ta nere
onespena».

Itzok esan orduko, negafari eman zion befiz,
umea iduri. Eragin zioten Luis'i ere aitaren mal-
koak; baña an bañuan poz zabal bat nabaitzen
zuan, Jainkoaren naia betetzeko poza; ta poz ori,
ba'daki Luis'ek, jesuita dijoan semeari, biotza
erdi-bi, onespena eman dion aitaren biotzak
ere bereala nabaituko du zabal-zabala. Betikoa da
ori! Komentura joandako semea edo alaba, zen-
bat gurasok izaten duten, etxean gelditutakoak
ematen dizkieten naigabeen pozkañi!

Aitari eskeñak eman, eta ba'dijoa Luis gelara.

An, gurutzearen aurrean belauniko, besoak
zabalik, zeruko zorionekoak bezin alai arpegia,
Jainkoari eskeñak ematen ari da gaiaipen aundi
onegatik. Emateko zan izan ere.

Jainkoagatik aitarenganako maitasuna garaitu
du. Ba'dute santuak ere gurasoenganako maitasu-
na, santu ez diranak baño aundi-xamur-sakonagoa;
baña gurasoak baño Jainkoa dute maiteago, seme-
maitasuna ere Jainkoari zor zaio-ta.





G U R . Kastiglioneko Markes gaztea, etxeko eskubide guziak utzi ta jesuita zijoalako bereala zan zabaldu Gaztelutzar osoan, menditik egalera.

Kaŕikan zijoala ikusten ba-zuten, an ziran dianak leio ta ateetara, ta malkoa begietan:—¡Or dioa Markesaren seme santua!—esaten zuten.—Ez gu izan, ofelako nagusi baten mendekotzako gai.»

Goiz batean eriko gizon batzuek jauregira, Luis'ekin egon nai dutela-ta:—«Gure don Luis jauna,—esaten diote — zergatik utzi nai gaitu? Olako erialde ona, mendekoak onen esanekoak, eta gañera, ba'daki, oso artua degu berori...» Luis'ek iripaŕez erantzuten die:—«Nere arima zeruratu nai det; eta jauregian zailtxo ikusten det.»

Eldu da noizbait ere Gaztelutzaíetik erteteko garaia. Gizon, andre ta ume, negar batean daude guziak Luis dijoan zalgurdiari begira:—«Ba'díjo-akigu gure markestako santua:... Aitaren gogorkeria dala-ta, eraman bear izan dituanak. amazazpi urteko gazte maite ofek!»

1588'gn. urteko azilaren 2 da, Mantua'ko jauregiko areto batean an non dagoen Kastilon'go Markesa beste jaun aundiki batzuek inguruan dituala. An dago Luis ere; baita lege-gizona ere, paper aundi baten idatzi ta idatzi. Oraintxe utzi bear ditu mende-eriekiko eskubiee guziak Kastilon'go Markesaren seme nagusiak.

Zaldun aundiki aiek, beltz daukate arpegia. Markesak begiak aundituta. Luis'ek, pozaren pozaz, zeruko argia dariotela. Asi da irakurtzen lege-gizona; alegia: Castiglione'ko Markes Don Ferante ta Doña Marta'ren seme nagusi Gonzaga'tar Luis'ek Efadulfo anaiari uzten dizkiola gurasoengandiko mende-eriekiko eskukide guziak.

Luzea da agiria. Ta lege-gizonak irakuríago ta Luis'ek poz aundiago ta Markesak biotza lañi-ago, seme maiteari agur egiteko garaia bai baitatorkio. Jafi dira bazkaritan. Markesaren maian

ziran, lekukotzat batutako aundikiak oro. Luis'ek bitartean, markes- seme-jantziak, guziak, erantzi-ta jantzi du jesulagunen sotana.

Ta ala, jesuita-jantzian agertu da bat-batean bazkaltegian. Jazkera artan ikusi-ta, ezin izan zioten negařari eutsi; batez ere Markes jaunak mara-mara malkoa zerion bazkalarte osoan.

Luis'ek ez zuan negařik; poza zerion, ta berak izan zuan itza. Jauregietan zerua irabaztea oso zala dana,.. norbere animaren osasunari begiratu-beař zaiona. . itzaldi egokia egin zien.

Biamamonean, azilaren 3'n, aita ta amaren aũean belauniko jaři ta onespen-bendizioa eskatzen die; baita aiek eman ere negar ta zotin artean zabal-zabala.

Eřodulfo ta biak dijoaz biaramonean Eřoma'ra bidean. Po-ibai ertzean agur egin dio anaiari ta ba-dijoa orain Feřara'rontz.

Laguntzat daramazkian jaun aietako batek:— «Poz izango da Eřodulfo—esaten dio—Kastilon-e'ko markestakoaren jabe egin danean» — «Ni areago—erantzuten dio Luis'ek—utzi dedanean».

Eřoma'ra bideko zertzeladarik ez noa esatera. Ařoztetxeetara eltzean-ta, gelan sartu, aldean

daraman gurutze-aufean belaunikatu ta antxe egiten ditu bi ordu otoizketan... Gero zartadaldia. Ariturik zijoazen aren laguntzaleak.

Eldu dira Eñoma'ra. Jesulagun Nagusia baratzara jetxi ta ongietofia ematera datorkio. Luis auspez aren seme ta mendekotzat eskeintzen zaio.

Aita Santua ikertzera ere joan da; Sixto V, agure zimel langile-utsak, galdetzen dio:—«Ongi gogoratu al-dezu gero nolako biziera estua artzera zoazen?»—«Bai, Aita, ongi erabaki det.» Aita Santuak ematen dio bere onespina.

Eldu da zorioneko ordu maitea. Kirinalganean dago San Andres'en jesuitagaitegia.

Antxe sartu da Luis; bere senitarteko batzuek, —Eskipión Gonzaga'k-eta—lagundu diote. Agur egiterakoan:—«Zeruratu arima—esaten die.--Esan aita Markesari: *Obliviscere domum patris tui...* Ez dedala ez eña ez aitaren etxea gogoan, zerurako eragozpen ditudanean».—«Eta Eñodulfo'ri zer esango diogu ba?»—«*Qui timet Deum faciet bonum*», Jainkoaren bildur danak egingo du on».., Ta, begiak-busti, agur egin zioten alkañi.

Gero Gonzaga'tar Eskipion Patriarkari agur egiten dio: «Nere goi-deiari jaraitzeko egin izan

dizkidazun bide ta laguntza guziagatik eskeñik asko; otoitz egingo det zure alde». Jerusalain'go Patriarkak negaía dariola erantzuten dio: «Zorionekoa zu, bide ortatik artu dezulako.» Ta etxeko Abai:—«Zeruko aingeru bat etoñi zaizue gaur zuenera».

Guziei agur egin ondoren, sartubeñien zuzentzañe egiten duanak erakusten dion gelara an dijoa pozak zoratzen zerura bai-lijoa.

Gela bañuan auspeztu ta biotzetikako eskeñak ematen dizkio Jainkoari mundutik atera ta zeruko atari artara ekañi dualako.

—«Jauna,—esaten dio—emen ni osorik zuretzat; indazu, beti, il arte, zure etxean, zuk nai bezela bizitzeko zori ta grazia.»



ARKESAREN ERIO-TZA. San Andres-jesuitagaitegian ez daramaz oraindik iru ilabete ta aitaren ilberfia artu du Luis'ek.

Ementxe esan nai dizuet nolako eriotz edeña izan zuan. Ikusi

dezatela seme-alabak komentuan sartzea zoritxar aunditzat daukaten gurasoak nolako eriotz edeña ematen dien Jainkoak Berari semeak eskeintzen dizkienai.

Markesa, len ere esana dago-ta, beretzako ta bere etxerako aundizale ta diruzale itsu-itsua da; neufiz gain ondotxo. Ta ori baño okefago, jokarlari galdua da; ta emazte-umeentzat izan diteken gurutzerik astunena da jokalaria; Jainkoaz edo aztuta, edo, galtzen duanetan, biraoka bizi da.

Ongi daki Luis'ek au guzi au, ta Jainkoari otoitz eta otoitz ari da aitaren alde. Jaunak entzun dio: ta, biotz aundikoa da-ta, esku zabalez ordaindu nai dio Markes aitari, Luis'i jesuita sartzen uzteak eman dion atsekabe miña.

Gaztea etxetik joan zitzaion orduko, na'baitu zuan aitak biotza biguntzen, ontzen ari zitzaiola. Ondo gogoan dauzka seme nagusiaren or-emen guziak... Ate-zirikikitotik begira an ikusten du be-launiko, gurutze-auñean otoitzka, bizkar goñiak erukigabe gogorki luña goñitzeraño zart eta zart, jesuitatzako aitaren baimena irixteañen. Ondo gogoan dauzka, bai. «Santua zan nere semea, ta ni bitartean gau ta egun jokoan eta jokoan ondasunak galtzen; emaztea negañez eta Luis neregatik ilduratzen gixajoa.»

Andre Marta'k eta jauregiko moñoeak oldostun dakuste Markesa, Luis'en joera ezkerro. Jaungoikoari emanago dirudi. Jokoari utzi dio.—«Ez da lena»—diote moñoeak. Semeak aita biurtu du.

Ogean datza ezueriz (gotaz). Gauero, Luis'ek utzitako gurutzea auñean jañarazi ta gela-moñoe batek lagunduta antxe esaten ditu zazpi Garbaisalmoak. Gero Andre Marta ta semeekin batera Letaniak. Aren jaiera ta negañak, añituta dauzka guziak.

Ondoren, gurutze donea eskuan artu ta negaña dariola bulaña joka. —«Jauna, eruki—dio; gaiztoa izan naiz, Jauna; eruki nitaz.» Markes Jauna bera ere, bere biotz-aldaketaz añitua dago.—


«Ba'dakit nik malko auek nondikan datozen: Luis'i zor dizkiot. Luis'ek iritxi dit neri Jaungoikoagandik oben-bekatuena damu ta garbai au.»

Gero, bizi guziko aitorketa egin du biotz-damu aundiz. Bitartean egunean baño egunean Markesa gaxoago ta gaizkiago. Osagile beñiak ere ba'dakarzkiote; alpeñik. Ez da osabiderik; il egin bear. Gau batez esan diote gaxoari:—«Prantziskotañen burua, gure aidea etoñi zaigu.»—«Badakit zertara datoñen: bereala il bear dedala esatera».

Ikusi orduko esan dio markesak;—«Ba'dakit zertara zatozen; datoñela apaiza.» Gau artan bertan aitortu zan. Biaramonean gaizkiago ta gaizkiago. Oge-inguruan negañez guziak. — «Ez egin negañik—esaten die—; poz artu bear dezue, Jainkoaren auñera onen gertu noalako.» Ta bereala, il da. Jaunak sariztu du; Markesak Jainkoari semea, Jainkoak Markesari eriotza edeña.

Artu du Luis'ek il-beña. Semea da-ta, asko maite zuan-ta, biotzeraño eldu zaio; baña ain santuki il dala jakitean, poz da Jaungoikoagana zerura joan dala-ta.

Ona amari egindako idazkian zer dion: «Nai-gabe aundia eman dit aita maitearen eriotzak; baña poz izateko da. Orain bai esan dezakedala: *Aita gurea zeruetan zaudena*».





ESUITAGAI. Orain-
dañokoan, emezortzi
urte betegabeko gazte
onen egintza afigaŕiak
edestu ditugu. Aren
arimaren garbia, aren
ilduralatzak, aren jain-
kozaletasuna ta Je-
sus'en Lagundian sar-
tzeko aitak jaŕi zizkion

eragozpenak menderatzen aren bular sendoa ikus-
ita, nor ez aŕitu?

Orain osterara, Josulagun sartu dan ezkerora, ez
dezu orielako aŕigaŕirik ezer ikusiko; len bezin
santua ez dala usteko luke orain norbaitek.

Oŕatik, gogo-arazoetan aditzen duanek ez
luke esango orlakorik. Jesuitagaia da orain, ta
sartu-beŕian zuzentzaŕleak agintzen duana egin
bear; ta iñoren esanera bizitzea Jaungoikoaren
aŕerako bide on, irabazi aundikoa, da guziz; gi-
zonarentzat ez bait-dago burua makurtu ta iñoren
gogoa egitea baño gauza zailagorik. Luis'ek bes-

teren esana egitea, bera baño santuago izan ez-
aŕen ua, ez da lotsagaŕi; Jainkoaren izenean agin-
tzen dio; ta aren esana egitea, Jainkoaren esana
egitea da.

Gañera, Jesus'en Lagundian sartzerakoan
irakuŕi duan lenengo arauetako batek ona zer dion:

«Lagundi ontan sartzen diranen egitekoa ez
da Jainkoaren graziaren bitartez norbere arimak
donetu ta zeruratzea bakaŕik; besteenak donetu ta
zeruratzeko ere, grazi ofen bitartez alegin guziak
egin bear dituzte.»

Ta oŕegatik, ez dio uzten gaien Zuzentzaŕleak
Luis'i Gaztelutzaŕ'en bezelako oñaze-nekerik ar-
tzen. Alako baraur gogoŕak, naiz odola dariola
jaŕi arterañoŕo bizkar-aztinketak egiteko baimena
eskatzera dijoanean, «Ez,—erantzuten dio Aba
zuzentzaŕleak,—jesuita on izan nai ba-dezu, bes-
teen arimak zeruratzeko gauza izan bear dezu, ta
oŕetarako osasuna bear da; oŕelako nekeak artuta
beŕiz, galdu egingo zenuke; ta ez.»

Ba'daki gañera Luis'ek egunoroko egitekoak,
dianik txikienak ere, ongien egiten dituana, dala
jesuitarik onena. Auxe ezin izaten dute askok eta
askok aditu, ta uste izaten dute eŕirik eŕi itzaldi

beroak egiñaz dabilen Aba mixiolaria, atezai edo gaixoaren ondoan ixil-ixilik Jainkoaren naia egiten dagoen Anaia baño doneago dala... ta ez izan.

Egiten ditu bai Luis'ek emen ere baraur eta gañerakoak; baña berak dionez, aitaren jauregian egiten zituanen aldean, utsa dira; ala ere pozak dago ordea; itsas-ontzian bezela lekaidetzan ere, añaunean ari diranak aña aufera egiten omen-dute ontzi ertzean exerita itsasora begira ederki dijoazen esaneko lagunak-ere ta...

Izketan ardura aundia jartzen du Luis'ek, besteetaz itz egiteko batez ere. Mena, eratsua ta argia da guziekin; mentasuna ta guziekikotasuna, alkar-maitasunak sortzen dituan loreak dira. Oregatik santu-usairik aundieneko gizonak ere, menak ez ba-dira, beste onbideen batzuetan izan ditezke done, baña zakarkeria zuzendubearako akatsa dute.

Beste zer arigari bat ere ba'du Luis'ek: gauzak aren gogora naiz bestera etori, ua beti alai, beti berdin.

Lagun-artean bizi bear duanarentzat ain bear-eko dan berdintasun au, ba'uko pakeak sortzen du. Begietan izaten da ezagun; itsas-azala bare agiri danean, ba'ena ere ez bait-da asafe izaten.

Bare dago Luis. Ez dago ua asaldatzerik. «Dator-
kidan dana, obena ez beste dana, Jainkoak bial-
duta datorkit, eta, nere gogokoa izan ez izan, ni
beti poz Jainkoarena egiten ba-da.»

Ona emen zorion-bide eskutua. Aberatsik
aberatsena ere, zerbaiten ifits okeía duan bitar-
tean, ezin diteke zorioneko izan; ez bait-diteke
garbi ta bare egon ituí loia darorkion intzira.

Aita San Iñazio Loiola'taíak bezela Luis'ek
ere neke-bidetik asi zuan bere donebidea ta gero
afouskeria menderatzeari ekin zion. An dabil Efo-
ma'ko kaleetan jantzi ufatua soñean eta zaku zaía,
lepoan, aterik ate eskean.

Umetxoekin eta beartsuekin ere antxe ibilí oi-
da Efo-ma'ko enparantzetan Kristau-ikasbidea era-
kusten... Kastilon'go markestarakoa beartsu ta
eskekoen predikatzale ikusita, bein baño geiago-
tan gelditu izan dute zalgurdia Gotzai ta Kardina-
lak aíturik.

Ufengo batean sei urte ontan aitortu ez dan
gizon bat arkitu du. Itz egin dio bero-bero, ta
biotz-ukiturk an dijoa pekataria jesuiten elizara
bere obenak aitortzera.

Aren elizkoitasuna ez dago zertan aitatu.

Aldareko Jaunaganako aren maitasuna! Igandeoro, orduan ez bait-zan sañiagotan artzen, -jaunartzen du. Ostegun-ostiral-larunbatak gertaketan, eta astelen-astearte-asteazkenak eskeñak ematen igarotzen ditu.

Otoitzaldian, añaña da Aita Ceparik diona, ez omen da bat ere gogo-bañeiatzen. Alpeñikako burutasun eta beñiketari ez bait-dio iñon leku-ematen.

Ona nolako adibide polita dakañen. Ortik ezagutuko dezue igeñi gabe gogo-bañeiatzearen sus-traia non dagoen.

«Intzirako ur-gañā geldi ta garbi ez baldin badago, ara ureratzen dan gizonaren irudirik ez da urgañean agertzen, garbi ta osorik ez beintzat. Ezta gure animan ere: grñā ta gurari txañez nastua baldin ba'dago otoitzera dijoana, ezin Jainkoaren anima irudirik ongi agertu aren ariman, ezin aren Jainkoaren antzekotu».



AGUNDIKO IKASLE.
Castiglione'ko mar-
kesgoa utzi-ta etofi dan
gazteari dagokion lan-
bidea ez dala esan
dezake norbaitek ur-
teak eta urteak libu-
ruen gañean egitea;
amaika on geiago
egin zezakean non-

bait ere mende-erriak zuzentzen! Ez ofelakorik;
Jainkoaren auferako irabazi aundiko biziera da
Luis'ek ixilean daramana; Jesukristo gure Jauna
ogetamar urtean egon zan Natzaret'eko arostegian
lan ta lan.

Ikasi ta ikasi aritzea da Luis'en egitekoa;
Jainkoak nai du; gerokoan santuz gañera, jakintsu
ere izan dedin; eta gañera, lurbira osoko mutil
ikasle guzien eredutzako ta ispilu egiña azaldu
dedin.

Jainkoaren naia da-ta, gogoz ari da ikasten

Luis. Jesulagun sartzean, «Lagundiko Araudia» deritzaion liburutxoia eman diote, ta antxe irakurí du lateraz idatzitako arau-sail bat: «Lagundiko ikasleentzako arauak.»

Ona euskeraz lenengo arauak zer dion; «Ikasleak lendabizi garbi zaitu bezate arima, ta ikasketak Jainkoaren aintzarik aundienerako ta arimen onerako egin bitzate. Safi eska bizaiote Jainkoari ikaspideetan auferatzeko argia ta laguntza, Iesus'en Lagundiak nai duana iritxi al izan dezaten: alegia, Jaunaren maastian arimak zeruratzen lan egiteko, santutasunez eta jakintzaz gai izatera eldu». Berebiziko araua ikasleentzat, afokeri utsez ez, baño Jainkoagatik eta arimen onagatik ikasten eta alegiñean ikasten saiatzeko.

Ederki aitu du Luis'ek arau sakon onen mamia. Lenengoaren osagarí da bigarrena: «Ez dezatela ikasleak uste izan, asko ikasteak onbideetan atzeratuko dituanik; beste aldera, Jainkoagatik ikasten aritzea, Ikastetxeetan egin ditekenik onena da; ta an ikasitakoak gero ezertarako izango ez baiditu ere, esana betetzea eta Jainkoagatik ikasten aritzea, irabazi aundikoa da Jainkoaren auferako.»

Orelaxe ikasten du Luis'ek. Ikastaldi aurretik belauniko jañi ta laguntza eskatzen dio Jainkoari.

Jesuitetxetik atera egin bear izaten zuten orduan Ikastetxera. Ari begira guziak, kalean zijoan; jaren eratasuna, begiak luñera-ta!...

Aren eratasunaz txoraturik uraxe ikusteañen bakañik joaten da apaiz bat egunero ikastolara. Izan ere, Gonzaga'r Luis bezelako gazte batek, gazte garbi, eratsu, ikastun, argi batek, izlari aundi batek baño onura geiago egiten du Ikastetxetan; izlariak nolako izan bear duten esan egiten du, gazte onak jañaipidea eman; ta igeri gabe: «Ni ere ezin ote ninteke oñen antzeko izan?» —esanazten du.

Ez omen-zan nolanaikoa Luis'ek bere jañaipide on eta aundiki-ikutuaz, ikas-lagunen artean zabaltzen zuan alkañen arteko maitasuna eta ibili guztirako eratasuna.

Ikasle bat izaten da askotan naikoa talde guziko bake ta lagunarte onari eusteko. Makiñakurpilai ematen zaien olioia bezela da; kurpil guziak, olioaz, leun-leun ibiltzen dira. Eta bestela, guziak naasteko bat bakaña da naikoa, dalako ori, ziztrin, naspilzale, kazkar, ta batez ere lizun oieta-

koa baldin ba-da. Gurpil uertu bat naikoa, makiña osoa nasteko.

Garbia da Luis, gorputz eta anima; aitorleak ez dute arengan barkapengairik arkitzen. Lorarik bikañena uraxe da lore-sail artan. Erroma'n arekin bizi diran amazazpi-ogetabost urte bitarteko gazteak, guziak bizi bait-dira garbi, aingeruak iduri.

Oraingo ikastetxe askotako gazteak auxe ezin izaten dute aditu: ainbeste gazte ta oñen garbi nola bizi ditezken. Garbi ta alai ala ere.

Ez jakin nonbait orlako oiek luñeko zirtzileriaz ez liluratzeko, begiak, goian, asmo jasoetan erabili bear dirana. Jainkoaren bilduñeko kristau gazteak, lanari ekiteko bere geroari ta bere Abeñiaren eta batez ere Eliza Amaren gorapenari begiratzen baldin ba-dio, gazte askoren galbide lizunetatik ia igeñi gabe iges-egingo du.

Urtzizti-gaietako ikast-ezbaia izaten dituenetan, alegin egiten du Luis'ek lagunaren jakinduria azaltzen, afokeri-izpirikan gabe.

Bein batean, Luis izentatu zuten etxeko guzien aũean egi baten alde itzaldia egiteko. Gorapen aundikoa izaten da ori. Afo-xamañak, egiñalak egiten dituzte, guzien aũean beren buruak azaltzearen.

Luis'ek osterera esan du berekiko: «Nere burua apalerazteko ereti ona; gaizki egin bear det itzaldia». Erabaki au bere buruz artzea ere ez zeritzan ondo ta irakasleari esaten dio: «Nere burua beeratzeaŕ-en, gaizki egin ote-dezaket?—Ez ofelako burutapenik—erantzun dio—Jaungoikoaren gorapenerako, alik ondoen egin bear dezu». Ala egin ere Luis'ek, eta aŕituta utzi zituan guziak aren betiko buru argi-zoŕotzak.





ERURA. 1591'gn. urtea. Gosete aundia sortu da Italian, eta uri nagusiak beartsu ta eskekoz beteta dau-de. Izufite txar bat ere zabalduz asi da gosearen lagun. Eroma'ko ateak betean datoz egunero gizon, ema-

kume ta aur, guziak naste, erdijantzian eta arpegiak zurbil. Gosea asetzeko zerbaiten bila datoz.

Gaxoz bete dira eritegiak. Luis'en Ikaste-txean diotenez, izugarizko kalteak egiten ari dira gosetea ta izufia. Aitak eta Anaiak oro atera dira beartsuen alde eskean.

Baita aundiki-etxeko jesulagun gaztea ere; au dijoa Anae Luis, zakua bizkafean-ta etxerik etxe ate-joka, pozik alare, beartsu ta gaxoentzat eskean Jainkoaren izenean.

Fiorentzia'n ezagutu zuan jaun aberats bat eldu omen-dala Eroma'ra ta an dijoakio sotana xañaz, zoñoa bizkafean, ate-joka: «Eri gaxoentzat zer bait Jainkoaren izenean». Kastilon'go marketzakoa ala jantzita ikusita, txunditurik gelditu zan jaun aundia ta pozik eman zion eskatu guzia.

Eritegiko gaxoak zaitzera joateko baimena eskatu die bein Luis'ek etxeko Nagusiei: «Gaitza itsaskoña da-ta, obe da ez,»—erantzun diote; baña ekiñaren ekiñaz iritxi du azkenerako.

Ikusteko negargaña! Izurri-gaitzak jotako eriz betea gaxoetxea. Batzuek ogean, besteak armaletan, bazteretan luze-luze, argal, zuri, il-beaŕean. Jesuita-gazteak, ogei-ogetabost urtekoak, adiñik edereñeko mutilak an dabiltz batera ta bestera gaxoai itz gozoak esan, jana ta osagaiak eman, ogeak egin, luña garbitu, ta dana arpegi alaiaz, ango usai kirats artean.

Pil-piletan dabil Luis. Ez darabil ark kutsatubildurik. Gaxorik nazkagañienarengana dijoa. Gaitzaz kutsatu ta il ere egin dira jesulagun gazte batzuek. Ikas-laguna iltzen ikusi-ta,—«Oi?—zioan Luis'ek—Nor il litekean ori bezela!»

Gaxo kutsatu bat zaitzen dago orain jesula-

guna maite-maiteki; besarkatu ere egin du nazkarik aundiena eman dion batean... eta bereala da bera ere kutsatu. Lañi dago.

Ogeratu da. Igeñi du mundu ontatik alde egin bear duana, ta pozaren pozak txoratu bear du. Iltzeko gogo ori bidezkoa ote-dan ere kezketan ta galdetzen dio oraintsu aldareetaraturako Belarmino jakintsuari:—«Aita: il ta Jainkoa ikustera joateko onenbesteko gogoa izatea, ez ote-da txaña?»

—«Ez seme; santu askorena dezu ori.»

Luis, egunean baño egunean gaizkiago, artu ditu Elizakoak eta Azken-Igurtzia ere biotz-biotzez. Aitaz ta Anaez betea dago gela. Malkoak ikusten dira.

Luis'ek Aita Nagusiari ots egin, eta:—«Aita: ba'daki; lenago, ainbeste neke ez artzeko esaten zidaten, agian, osasuna galdu ta gero, il-orduan damu izan ez nendin. Esan aiei ez dedala nekeak artuen damurik, beti Negusien baimenaz artu izan ditut-eta.»

Eñialdeko Aita jesulagun-burua datorkio orain. —«Aita:—esaten dio il-agiñean—bereala il-beařean naiz. Ematen al-dit, iltzeko ondo gertatu nadin, astiñaldi bat artzeko baimena?»—«Iñola ere ez;

ez daukazu ortarako indafá.»—«Lufean luze iltze-ko baimena bederen emaidazu, ba.»—«Ez, enetxo—erantzuten dio Aita Buruak;—zaude ogean geldi-geldi.»

Oraingotik atera da orátik; atera-edo... Sukar gaizto ura ez dijoakio ta arexek jan bear du. Nortanai ere, eriotza ezin uruti izan. Alkian exerita (ez bait-da bere oñez joateko gauza)—Kardinal Jaun bat dakarte Luis ikustera: Gonzaga'tar Eskipio Karkinala, Luis'en itzetatik beti arimarako zerbaiten onura ateratzen omen duala-ta. An dago gazte doatsuaren oge-ondoan exerita entzun eta entzun; mundu ontatik alde egin eta betiko zeru edeñerako aren poza ikusten ezin da aspertu ere.—«Eskeñak zuri—esaten dio Luis'ek—Jesus'en Lagundirako bideak egin zenizkidalako.»—«Ez,—erantzuten dio Jazkordunak—nik zuri zor dizkizut eskeñak, gazteago ba-zaitut ere, asko ikasi bait-det onbidetan zuregandik. Zure itzak eta egiñak onura aundiko izan ditut.»

Biotz ukitua atera zan Kardenala, ta «Gonzaga'taíetan —zion — auxe da dianetan zoriontsuena.»

Eritegi artan bertan zetzan gexorik, oso gaiz-

ki, Aita xar bat ere. Luis ikusi nai luke ta eskatu dio Anae gaxozaiari ekañzezala afen bere gelara. Jantzi ta eraman dio gexozaiak. ¡Ura poza Aita xañak Luis ikusi zuanean!

Esan dizkiote biak alkañi itz onak gaxoaldia ondo eramateko. Ta gero Aita urtetsuak esaten dio:—«Luis Anaia: bereala il bear det. Eta meze-de bat egin bear didazu; ez ukatu. Alde egin baño len, eman zadazu zure onespena.»—«Berori da apaiza, ez ni; onespena beroñek eman bear dit neri»—erantzuten dio dana añiturik Luis'ek.

—«Luis Anaia, alde egin baño len zure bedeinkapena»— eskatzen dio beñiz ere aitonak. Luis'ek ez du nai, baña gaxozaiak ere emateko agure giza-joari atsegin ori ta eskuiaz Aitaren egiñaz:—«Jainkoak onetsi gaitzala biok»—esaten dio.—Pozak zoratzen geratu zan Aita zaaña.

Andik egun batzuetara eldu zaio aitonari eriotzako ordua. Luis'ek ez daki ezer. Baña gau añtan Aita zarak agertu ta esaten dio: «Luis Anaia: otoitz Jainkoari nere alde, lañi nago-ta». Luis'ek esnatu ta—«Ametsa zan; ez da zer kezkatu rik»,—ta beñiz lotan jañi da. Begiak itxi orduko, beñiz ere Aita Carboneli len baño lañiago:—«Otoitz Jainko-

ari nere alde, neke-min auetan ezin det-eta.» Esnatu da, ta—«Irudipen auei utzita, lo egin bear det nik, osagileak agindu bezela.»—Baña irugafen aldiz ere Aita Carboneli:—«Anae Luis: il-agiñean nago-ta, otoitz Jainkoari nere alde. Zerura eramán nazala; andik lagunduko dizunt.»

Biaramon goizean Aita Carboneli'ren ilbería edatu da etxean, eta Luis'ek esan die:—«Aren arima, Garbitegian ikutu ta beste gabe zeruratu da?.

Uda eldu da. Sukañak ia aitu du Luis'en gorputz argala. Eric-tza uñean du-ta, amari idazki bat egin dio agur egiñaz:—«Ez dakit zer ematen didan biotzak, oraindik onein neke gutxi eramán eta geiagorik gabe Jainko maiteak betiko zeru edeña eman noi didala gogoratzen dedanean. Ba'noa, amatxo, zerura noa; antxe alkar ikusiko degu bereala beti-betiko argitan.»

Iltzeko ondo gertutzea besterik ez darabil orain buruan. Batzuetan jaiki, ozta-ozta gurutzea dagon mairaño eldu, gurutzea artu, mun-eman eta biotzaren gañean estu-estu egiten du.

Gau batez Aita Belarmino'kin izketan, bere aitorleak zuan-ta, galdetzen dio;—«Ba ote da iñor Garbitokira gabe zuzen-zuzen zeruratzen?—«Bai

egiazki; ta oietako bat zeori.» Bereala zeruan izango zituan atsegin beteak gogoratuta, poz ere poz zan Luis. Egun gutxi bañu il bear duala dio; ta eguna ere izentatu du; Gorpuzti-osteko zortzigañ-en eguna, oraingo Jesus'en Biotz-jai-eguna.

Eguna badator uñeratuz, eta bere Aita artuetako bati deitu ta esaten dio:—«Eriotz auñeko zortzi egun auetan etoñi zaite, añen, nerekin zazpi Garbai-Salmoak esatera.» Ta ala etoñi zitzaion. Aita oge-bañenean belauniko jañita, salmoak esaten ari da. Gelditzen da noizean bein. Luis, salmoak gogartuz, biotz unkiturik, Jesus gurutzeko-ari begira negar ta negar dago. Baita Aba ere.

Gorpuzti-osteko zortzigañen eguna da. Egun-sentian, gaxozaia gelara sartu ta Luis besteetan bezela arkitzean, esaten dio:—«Ona Gorputz-zortzigañena eldu, Anae Luis, ta ez zera il oraindik.»—«Baña gaur ilko naiz»—erantzun dio gaxoak.

Elizakoak eskatu ditu. Baña gaxozaiak:—«Ez zaude oñein gaizki; oraindik zertako?» Luis'ek añen baño añen eskatzen ditu ta azkenean ematen dizkiote. Artu ditu, ta orain guziei besarkada bana eman nai die, uñutirako bidea bear bait-du.

Negañez daude guziak. Bide artan pozik lagunduko liokete berak ere.

Aita Erki-Burua sartzen da ontan.—«Zertan gera, Anae Luis?»—galdetzen dio.—«Bagoazela, Aita.»—Joan, nora?—«Zerura.»—«Zerura beraz?»—«Bai; arako asmotan naiz ni, Jainkoari eskerak.»—«Entzuten al-dezue?»—esaten die aopean an aldamenekoai,—«guk Erroma-inguruko erfiren batera joan bear degunean bezela itz egiten du onek zerura joateaz. Itzen danean, zer egingo ote-degu? Besteak bezela eortziko ote-degu?»—«Ez, besteak bezela ez; ori santua da»—erantzuten diote guziak.

Zazpirak aldean Aita Cepari'k oial zuria jartzten dio bekokian. Eta Luis'ek beti ere eskuaz kendu ta kendu. — «Ez zazu kendu — esaten dio Aitak —, burua ez ozteko dezu-ta.» Luis'ek begiez gurutzea erakutsi, ta: — «Jesukristo'k, il zanean, ezer ere ez zeukan buruan» — erantzuten dio.

Gaueko bederatziak dira. Aita ta Anae guziak oge-inguruan daude. Argi dago Luis. Aita Nagusiak, ain argi ikustean, beste egun bat ere iraun dezakeala oraindio ta geletara alde egiteko agindu die guziei. Bat-banaka Luis'en aurretik ba'dijoaz; zeruan ez dala aiezaz aztuko agintzen die Luis'ek guziei.

Bi Aita bakarik gelditu dira gau-belan. An

daude otoitzak egin, ur onetsia bota, mun-egiteko gurutzea eman... Luis, arpegia zurbil, izerdi otza bekokian. Eldu da eriotza. Begiak gurutzean tinko-tinko. Amañak kanpantofean. Jafi diote eskuan kandela, ta geiagoko gabe, il da Jaunaren besoe-tan. Ogetairu urte ta sei ilabete zituan.

Tximista bezela zabaldu zan etxe guzian Gorpuzti-ondoko ostiral egun-sentian il-beñia. — «Anae Luis Gonzaga il zaigu. Santua zan! Santua zan!»—diote guziak. Eta bereala ziran gelan etxe-ko Aita ta Anae guziak. Erlikiren bat eraman beañez egiñalean ari dira zein baño zein: oñetakoak, soñeko puskaren bat, eta abar.

Gorpua areto zabal batera eraman ta eskuan mun-emanaz dijoaz oro banan-banan aren auřetik, Aita ta Anae. Iluntzean elizara daramate. Izugařizko jendetza dator, ikasle ta abar, Luis ikusi naian. Ez dira gauza ango Aitak gorpua zaitzeko. Santu gaztea ikusi ta ikutu egin bear guziak. Batek ileak, besteak azazkalak, ark soñeko puskak... beatz txikia eraman dio beste batek.

Aita Buru Nagusiari galdetu diote:—«Onen gorpua, besteena bezela eortziko aldegu?»—Ez, santu-gorpua da-ta, ez besteak bezela.»Olezko

zeñaldo-bañuan Jesus Gurutzekoren aldare ondoan
jañi dute.

Araxe joaten dira orain kristau ik otoitz-egin
ta laguntza-eske. Araxe joaten da apaiz jesulagun
bat obi aren gañean loreak zabaltzera.

Gazte garbia bizi ta il zan
lili zuria iduri.

A. M. D. G.



ARKIBIDEA

Ofialdean

<i>I.—Mutiko txikia Kastiglione'n</i>	<i>9</i>
<i>II.—Mutiko txikia gizontxo</i>	<i>13</i>
<i>III.—Latin ikastera</i>	<i>17</i>
<i>IV.—Jainkoarekin izketan.</i>	<i>21</i>
<i>V.—Añera Jainko-bideetan</i>	<i>25</i>
<i>VI.—Munduko Eñegerikaltsuenarenean</i>	<i>29</i>
<i>VII.—Zeruko Amaren deia.</i>	<i>35</i>
<i>VIII.—Buñuka bizian.</i>	<i>42</i>
<i>IX.—Iru eraso aldi oraindik</i>	<i>44</i>
<i>X.—Azken-buñukak.</i>	<i>51</i>
<i>XI.—Agur</i>	<i>59</i>
<i>XII.—Markesaren eriotza</i>	<i>65</i>
<i>XIII.—Markes-semea jesuitagai</i>	<i>69</i>
<i>XIV.—Lagundiko ikasle</i>	<i>75</i>
<i>XV.—Zerura</i>	<i>81</i>

